

27/12

irizpena

Elkarrizketa Zibilaren Mahaia eratu eta arautzen duen

Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko azaroaren 23an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 27/12

I.- SARRERA

2012ko azaroaren 5ean, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, txostena eskatu zen Elkarrizketa Zibilaren Mahaia eratu eta arautzen duen Dekretu Proiektuari buruz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legeko 3.1.b artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aztertuko den Dekretu Proiektuaren xedea Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sortu eta haren osaera, funtzioak eta funtzionamendu-araubidea arautzea da.

Berehala bidali zitzaizen txostenaren kopia Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamen eta iritzia igortzeko eta Lan Batzorde egokiari horien berri emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.

27/12j

Gizarte Garapenerako Batzordea 2012ko azaroaren 16an batu zen, Irizpen Aurreproiekturako lehenengo proposamena eztabaidatze aldera. Egun horretan bertan, Batzordeak Irizpen Proiektu hau onetsi zuen eta Euskadiko EGABen 2012ko azaroaren 23ko Osoko Bilkurara bidali da. Bertan, gehiengoz onetsi da.

II.- EDUKIA

Dekretu Proiektuari buruzko testuak Arrazoiaren azalpena, 14 artikulua, 2 azken xedapen eta eranskin bat dauzka.

ZIOEN AZALPENEA

Arrazoiaren azalpeneko hasierari jarraiki, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea argitaratzean gure antolamenduan gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sartu zen, nahiz eta ez zen guztiz zehaztu. Hala, herritarren eremu antolatu honekiko lankidetzaren indartzeko beharrezko berretsi da.

Azaldutakoaren arabera, indartu eta egituratzeko prozesu honen ondorioz, egun oraindik amaitu gabe dagoena antolaketa eta koordinaziorako egitura egonkorra falta delako, gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea heldutasun eta esangura politiko etengabea murgildu da eta herri-administrazioek aukera hori aprobetxatu eta sustatzeko betebeharra dute.

Azalpenarekin jarraiki, Gobernu honek hainbat formula garatu nahi izan ditu, gizartean esku hartzeko moduak kualifikatzeko eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimendun erakundeei lehentasuna emateko. Halaber, lankidetzaren globaleko ereduak garatzen ari dira, gizartearen beharrezko detekzio hurbila, zerbitzuen kudeaketa eta zerbitzu eta programa berrien garapen eta berrikuntza jorratzeko.

27/12j

Elkarrizketa Zibilaren Mahaia tresna erreferente bihurtu da herri-administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko solasaldi politikoan. Hala, partaidetzako gobernantzaren ereduarekin bat egiten duen praktika politiko ona dela esan genezake.

Aipatu denez, Dekretuaren funtsezko helburua da antolamendu juridikoan Elkarrizketa Zibila sartzea. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko kontsulta eta erakunde-partaidetzarako organo nagusia sortuko da.

Xedea gobernantzaren eremuan Gobernuaren eta hirugarren sektorearen arteko elkarrizketa sustatu eta erraztea da, politika publikoen diseinuan eta egikaritzan benetako eragina izango duten eta hirugarren sektoreari politika horietan eta horiekin konprometitzeko aukera emango dioten akordioak eraikitzeko, behar bezala jasotako informazioan eta benetako partaidetzan oinarrituta.

Mahai hau politika publikoen diseinu eta ebaluazioan agente desberdinen partaidetza bideratzen duten kontseilu, batzorde eta foro desberdinen espazio osagarria izango litzateke.

XEDAPENAK

1. artikuluan Dekretuaren **xedea** azaltzen da, hau da, Elkarrizketa Zibilaren Mahaia sortu eta haren osaera, funtzio eta funtzionamendu-araubidea arautzea.

2. artikulua **izaera** ezartzen du. Horren arabera, Elkarrizketa Zibilaren Mahaia gizarte-ekintzaren hirugarren sektorean kontsulta eta erakunde-partaidetzarako organo nagusia izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eremuan.

3. artikulua **gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea** zehazten du.

27/12 

4. artikuluan arabera, gizarte-ekintzen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailera atxikita geratuko da Mahaia.

5. artikulua zeregina gizarte-politikak indartzea dela dio.

6-13 artikuluetan Mahaiaren osaera eta funtzioak zehazten dira, bai eta haren ordezkagarritasuna ere. Lehendakaritza izango da ordezkari nagusia eta, beharrezkoa denean, Lehendakariordetzak ordezkatuko du. Artikulu horietan azaltzen dira funtzionamendu-eredua eta akordioen araubidea ere.

Funtzioen artean (7. artikulua) egongo dira gizarte-partaidetzaren eta boluntariotzaren gaineko lege-ekimenei buruzko txostenen prestaketa, elkartasunaren sustapena, gizarte-eskubideak, inklusioa, gizarte-kohesioa, dibertsitatea, gizarteratzea, eta enplegua. Horrez gain, ikerketak egingo dira, irizpenak, gomendioak eta txostenak prestatuko dira, gizarte-gaiei buruzko proposamen estrategikoak egingo dira eta Gobernuaren planifikazio-tresnen ebaluazioetarako ekarpenak pentsatuko dira.

14. artikuluan EAEko Aurrekontu Nagusietako finantzazio ekonomikoa egongo dela azaltzen da.

Azken xedapenetatik lehenengoak ordezko araubidea ezartzen du. Horren arabera, dekretu honetan eta Elkarrizketa Zibilaren Mahaia onesten duten funtzionamendu-arauetan xedatu ez den kasuetan, Herri Administrazioen

Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean organo kolegiatuentzat ezarritakoa aplikatuko da, batez ere prozedurei edo organo kolegiatuei dagokienean.

Azken xedapenetatik bigarrena indarraldiari buruzkoa da.

I. Eranskinak Elkarrizketa Zibilaren Mahaian parte hartuko duten gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko hamalau sare eta federazioak jasotzen ditu.

III.- OHARRAK

27/12*i*

Batzorde honek ez du inoiz jarri zalantzan administrazioaren eta gizarteko beste agente garrantzitsu batzuen artean elkarrizketarako espazioak egoteko beharrezana. Hirugarren sektorea izan liteke horrelako espazio bat, Elkarrizketa Zibilaren Mahai barruan. Hala ere, gure ustez, elkarrizketarako espazio edo "mahai" horiek ez dira beti kontsulta-organoetan instituzionalizatu behar, are gehiago kontuan hartzen badugu erakundeen partaidetzarako organo espezifikoak daudela, kasu honetan gizarte-gaien eta enpleguaren alorrean.

Hori esan ondoren, Dekretu Proiektuaren balorazio juridikoa egiteari ekingo diogu, forma eta edukia aztertuz:

- Lehenengo oharra arau-mailarekin lotuta dago.

Dekretu Proiektuaren xedea (Elkarrizketa Zibilaren Mahaia eratu eta arautzea) eta izaera (hirugarren sektoreko kontsulta eta erakunde-partaidetzarako organo nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan) ikusita, **harritzekoa da sorrera horrek Dekretu maila soilik izatea**. Izan ere, esku-hartze publikoko beste gai material batzuetan, funtsezko instituzionalizazioa behar zuten kontsulta eta partaidetzarako organoak sortzeko Eusko Legebiltzarrak zegokion legea onartu behar izan du.

Gai honek garrantzi handia du, besteak beste organo horren "finantzazioa" eta "arabide ekonomiko finantzarioa" direla eta. Lehenengoari buruzko aipamen txiki bat egin da 14. artikuluan eta bigarrena ia ez da azaldu ere egin Dekretu Proiektu osoan.

Organo hori gizarte-ekintza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailera atxikita egongo da (4. artikulua), haren zeregina gizarte-politikak indartzea izango da (5. artikulua); funtzioen artean (7. artikulua) egongo dira gizarte-partaidetzaren eta boluntariotzaren gaineko lege-ekimenei buruzko txostenen prestaketa, elkartasunaren sustapena, gizarte-eskubideak, inklusioa, gizarte-kohesioa, dibertsitatea, gizarteratzea, eta enplegua, eta, horrez gain, ikerketak egingo dira, irizpenak, gomendioak eta txostenak prestatuko dira, gizarte-gaiei buruzko proposamen estrategikoak egingo dira eta Gobernuaren planifikazio-tresnen ebaluazioetarako ekarpenak pentsatuko dira; EAEko Aurrekontu Orokorretako finantzazio ekonomikoa egongo da (14. artikulua).

- Hala ere, **Dekretu hau Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapen bat dela argudiatu nahi bada**, kontsultatu zaigun testuan ez dela halakorik ondorioztatzen argitu beharra dago, eta, gainera, Dekretuak aipatu Legeko artikulua batzuk urratu litzake.

“Mahaiaren” sorrera aipatu Legearen garapen-arau gisa ezartzen bada, araudiaren hierarkiari jarraiki haren xedapenetan ezarritako mugak bete behar ditu.

Horren harira, 12/2008 Legeari egin zaizkion aipamen bakarrak orokorrak izan dira eta Dekretuko Arrazoen azalpeneko laugarren eta bederatzigarren paragrafoetan ageri dira; arauaren artikuluetan ez dago 12/2008 Legeari buruzko aipamenik.

Lege hori benetan garatu nahi bada, legeko zein **artikulu garatu behar diren** zehaztu beharko da argi eta garbi. Eta xedapenen ataleko lehenengo artikuluetan agertu behar da, **arauaren xedeari eta hark eratu eta arautzen duenaren izaerari** buruzkoetan, hain zuzen ere. Horrela baino ez dugu jakingo ekimen honen lege-oinarria eta Legeak araudi hori ezartzeko ematen dituen marjinak zeintzuk diren.

Lege-oinarri hori Legeko III. tituluaren egon liteke, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta parte-hartzearen araubideari*” buruzkoan, zehazki, III.

kapituluan, "*Kontsultarako eta parte-hartzerako organoak*".

Hala ere, Dekretu Proiektu honetan Elkarrizketa Zibilaren Mahaiari emandako trataera (ikus haren definizioa, ezaugarriak eta egotzitako funtzioak) **ez da egokitzen Legeak 47.2 artikuluan arautzen dituen hiru partaidetza-bideetako batera ere**, eta partaidetzarako laugarren modalitate baten bidez Partaidetza-organo bat sortu nahi da, **Legearen aipatu artikuluaen aurka**.

47.2 art. Parte-hartze hori honako formula hauen bitartez egingo da:

- a) Kontsultarako eta parte-hartzerako lege honetan aurreikusten diren organoak.*
- b) Parte hartzeko kontseiluak eta erabiltzaileen parte-hartzerako beste bitarteko formal batzuk, gizarte-zer-bitzuetako zerbitzuetan eta zentroetan ezarritakoak.*
- c) Herri-administrazioek gai orokor edo berezi jakin batzuetan parte hartzeko antolatzen dituzten prozesuak, gai horiek izan dezaketen interes bereziarengatik.*

Berez, a) letran aurreikusitako arteen "Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua" (Legeko 48. artikulua osoak arautzen duena) eta "Gizarte-zerbitzuen lurralde-kontseiluak eta toki-kontseiluak" (49. artikuluan araututakoak) soilik daude.

Bestetik, **Dekretu Proiektuko 2. artikuluan** agertzen den idazkuntza gogoratuz, "Elkarrizketa Zibilaren Mahaiari" buruzkoa, Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren harira xedatzen duena azpimarratu behar da. Izan ere, 2. artikulua **Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 48.1 artikuluaen aurka egiten du**, azken horrek **Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari ematen baitio Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailera atxikitako kontsulta eta partaidetzarako organo NAGUSIAREN izaera**.

48. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua kontsul-tarako eta parte-

hartzerako organo nagusia izango da, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari atxikia, eta, bertan, ordezkaritza paritarioa izango dute, alde batetik Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, eta, bestetik, arloan parte hartzen duten gizarte-eragile guztiek, zehazki, sindikatu-era-kundeek, enpresaburuen elkarteek, erabiltzaileen era-kundeek, gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek eta gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten profesionalen elkarteek.

Gure ustez, Elkarrizketa Zibilaren Mahaiari izaera bera emanaz gero, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen borondatea ordezkatu litzateke, azken horren arabera partaidetza-maila altuenean subjektu jakin batzuk egon behar baitira, besteak beste sindikatu eta enpresen ordezkariak, Dekretu Proiektu honetan dirudienez baztertu egingo liratekeenak.

Era berean, gizarte gaiez arduratzen den Sail bakarrari atxikitako kontsulta-organo nagusi bi egotea kontraesankorra da *per se*.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak berak sortutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluari eman dio gizarte-zerbitzuen alorreko partaidetza-mailarik altuena. “Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea” deiturikoaren jarduera-arloa “gizarte-zerbitzuak” adierazpenean sartutakoetako bat da, horregatik aipatzen du Dekretu Proiektuak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea eta horregatik eman die Legeak leku bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluan berau ordezkatzeko duten erakundeei.

Hori horrela, organo berriari partaidetza “nagusia” ematen bazaio ordezkatzeko dituen gizarte-zerbitzuen arloan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua organo nagusia izango da, kasurik onenean, gainerako arloetan baina ez horretan, eta, ondorioz, ez da izango gizarte-zerbitzuetako partaidetza-organo nagusia, Legeak nahi duen bezala. Hau da, **Legea urratu ahalko luke berau aldatzeko arau-maila nahikorik ez duen araudi honek.**

Bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren eskumenak kaltetu eta edukiak hustuko lirateke, bai eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea

(48. artikulua) betez eraturako organo sektorialetako batzuk ere. Izan ere, Elkarrizketa Zibilaren Mahaiari egotzitako funtzioen bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak egiten du lehendik ere. Kontseilu horretan, hain zuzen ere, hirugarren sektoreak hitza eta botoa dauzka eta partaidetza-lanez arduratzen da. Halaber, Elkarrizketa Zibilaren Mahaiari egotzen zaion funtzioaren batek (ikerketa, esate baterako) Gizarte Zerbitzuen Sailburuordetzari atxikitako beste organo batzuen berezko funtzioekin topo egin lezake (Behatoki lana, esate baterako).

- **Beharbada** Dekretu Proiektuan aipatzen den Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren sorrera **juridikoki egokitu eta Gizarte Zerbitzuen Kontseiluaren menpeko kontsulta-organo sektorial bihur liteke**, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko 48.4 artikulua arabera.

27/12*j*

48. artikulua. *Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua*

4. *Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barruan gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahal izango dira; kontsultarako eta parte-hartzerako izango dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren erabiltzaileen eta profesionalen beharrian berezien arabera zehaztuko da zein arlotan jardungo diren. Arlokako kontseilu horiek aintzat hartu ahal izango dituzte beren eginkizuna betetzeko egoki iruditzen zaizkien txosten eta ikerketa guztiak, bai eta, bereziki, erabiltzaileen ordezkari-erakundeek eta gizarte-ekintzaren hirugarren sektorekoek egindako proposamenak ere. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk sortzea eragotzi gabe, nahitaez eratu beharko dira arlo hauetako kontseiluak: adinduak, haurrak, ezinduak eta gizarteratzea. Orobat, gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren kalitaterako eta prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzarako kontseilu bat ere sortu beharko da.*

Kontseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea kontseiluok sortzeko xedapean ezarriko dira; xedapen horiek gizonetzkoen eta emakumezkoen ordezkari-erakundea izan dadin zaindu beharko dute.

Artikulu horrek gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialak sortzeko aukera

ematen du, kontsulta eta partaidetzarako, beharizan espezifikoek zehazten dituzten eremu materialetan jarduerak garatzeko. Orain arte, hirugarren sektorearen partaidetza izan duten gaietan eratu dira kontseilu sektorialak; hala ere, hirugarren sektorerako kontseilu sektorial espezifiko bat eratzea bidezkoa ote den planteatu liteke, eztabaida eta lanerako foro bat lortze aldera. Edonola ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren barruko organo bat izango litzateke eta azken horrek gizarte-zerbitzuen arloan duen ordezkari nagusia errespetatu beharko luke, 12/2008 Legean ezarritako eran.

Goian azaldutako guztia kontuan hartuta, Batzorde honi ez zaio egokia iruditzen Elkarrizketa Zibilaren Mahaia eratu eta arautzen duen Dekretu Proiektuaren tramitazioa, eta berau baztertzeko eskatzen du. 27/12j

Hala eta guztiz, argi utzi nahi dugu beharrezkotzat jotzen dugula elkarrizketarako espazio edo "mahai" desberdinak inkardinatze araudi sendo bat edukitzea (erakundeen partaidetzari buruzko legea edo antzekoa) eta, gure aburuz, zoritxarrez, araudi global bat lortzeko aukera on bat galdu da.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde honi ez zaio egokia iruditzen Elkarrizketa Zibilaren Mahaia eratu eta arautzen duen Dekretu Proiektuaren tramitazioa, eta berau baztertzeko eskatzen du.

Bilbon, 2012ko azaroaren 23an

Lehendakariak O.E.
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos

ERANSKINA

HIRUGARREN SEKTOREAREN ORDEZKARIAREN BOTO PARTIKULARRA

ELKARRIZKETA ZIBILEKO MAHAIA AITORTZEN ETA ARAUTZEN DUEN DEKRETU PROIEKTUA DELA-ETA EKONOMI ETA GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK EGIN DUEN IRIZPEN PROIEKTUARI EMANDAKO BOTO NEGATIBOAREN AZALPENA

Hau sinatzen duenak EGABen osoko bilkuran emandako boto negatiboa azaldu nahi du. Botoa Elkarrizketa Zibileko Mahaia aitortu eta arautzen duen Eusko Jaurlaritzaren dekretu proiektuari buruz eman zuen.

27/12j

Gizarte ekintzaren hirugarren sektorea deritzona osatzen duten erakundeen irizpidea (eta horrenbestez, hau sinatzen duenarena ere bai, haren ordezkaria baita EGABen) bidezko tasun eta justifikazio juridiko osoa eta egokitasun politikoa bilatzea da Elkarrizketa Zibileko Mahaia (aurrerantzean EZM) eratzeko eta arautzeko orduan, mahai hori EAEko Administrazio Orokorreko gizarte politika guztien eremuan eztabaidarako esparrua den aldetik. Lankidetzarako, laguntzarako eta gizarte ekintzaren hirugarren sektorearen sendoketarako ahalegina azpimarratu behar da.

Indarrean dagoen Ongizate Estatuaren ereduak dauzkan erronken arteko bat, hain zuzen ere, kultura publikoa berreratzea da, eta bereziki, hirugarren sektorearen jarduera zibila erabat ahalbideratzea, eremu publikoarekin duen loturan gizarte eraketarako eragile garrantzitsua den aldetik. Helburu hori lortzeko, ordea, kontua ez da administrazio publikoak bereak dituen eta eskuordetu ezin dituen funtzioak bereganatzea, ezta botere publikoek hirugarren sektorea manipulatzeko ere. Aitzitik, bi sektoreen artean konfiantzan, aliteritatean eta sinergian oinarritutako harreman mota bat sortzea da xedea.

Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreak (GEHZ) ondo daki gizarte parte hartzerako eredu berri bat sortzeko exigentzia sozial eta politikoa dagoela, eta bere parte hartzea ezinbestekoa dela. Hirugarren sektoreak, bada, beharrezkotzat jotzen du harreman marko berri hau sortzea eta, modu mailakatuan, botereaz jabetu daitezela herritarrak (Gobernantzaren

kontzeptuak ere ideia hori babesten du), boluntarioak, beraiek ematen dituzten zerbitzuen erabiltzaileak eta laguntzaileak, eta denek daukaten kapital moral berezia, elkartasun eta harreman klabea, agenda publikoetan hirugarren sektorearen presentzia gero eta gehiago eskatzen ari dela kontuan izanik. Ez da erabaki arina, ez ausazkoa ez oportunistak: arkitektura publiko berri bat sortu beharrari ematen zaion erantzuna da. Paradigma berri bat sortu behar dugu horrela eta, beraren bidez, ongizate gizartearen testuinguruan botere publikoei egiten zaizkien eskaera gero eta konplexuagoei erantzun azkarragoak eman. GEHZaren antolaketa mailakatuaren prozesuari ez zaio arrotza ordezkatu behar duen paper politikoaren kontzientzia hartzea.

Bi urte baino gehiago igaro dira elkar topaketa, elkarrizketa eta lankidetzaren esperientzia jorratzen hasi zenetik Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorearen artean, beraien sareetan artikulatuta. Dagoeneko mahai hori instituzionalizatzea adostu da, irizpena emateko aurkeztu zaigun dekretu proiektuaren bidez.

27/12

Dekretu proiektuari buruzko gogoetak

- 1.- Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen aitortzea eta kontzeptualizazioa. Zioen azalpenak dioenez, eta gehiengoaren irizpenak errepikatu duenez, euskal antolamendu juridikoan 12/2008 Legearen bidez sartu zen kontzeptu hori. Geroxeago 18/2008 Legean ere jaso zen, berdin antzean (hori ez da bi testuetako ezeinetan aipatu). Halere, aipatutako lege testuetako batean ere ez da finkatu haren esanahiaren definiziorik. Definizioak berak (3. artikuluan azaltzen denak) adierazten du mahaiak zein jarduketa eremutan esku hartu behar duen, hau da, GEHSaren jardunaren dimentsio publikoan eragina duen orotan: gizarte elkartasunaren sustapena, gizarte parte hartzea, gizarte eskubideak, gizarte inklusioa eta gizarte kohesioa. Gai horiek, geroago ikusiko dugunez, gizarte zerbitzuen eremua gaintitzen dute, baina EGABen gehiengoak EZMren edukia gizarte zerbitzuen eremu horri mugatu nahi dio. Zentzu horretan, aztertzen ari garen proiektuaren onespenez ondorio pedagogiko esanguratsuak izan litzake irizpenaren gehiengoaren iritzia defendatzen dutenengan.
- 2.- Elkarrizketa Zibilaren xedearren definizioa. Kontzeptu juridiko gisa

51/2003 Legean ageri da (2.e artikuluan). Politika ofizialen prestaketan, betearazpenean, jarraipenean eta ebaluazioan esanguratsuak diren erakundeek izan behar duten parte hartze prozesuei lotuta azaltzen da (lege honetan, ezindutako pertsonen esparruaz ari da). Horrenbestez, hau ez da berrikuntza, ezta hurrik eman ere, izendapenari dagokionez. Halere, agian, egia da, GEHSaren ikuspegitik gutxienez, elkarrizketa terminoa ez dela nahikoa inplikazioa eta lankidetzaren gehiago bilatzen dituen kontzeptzio bat ulertzeko, hirugarren sektorearen mamia bera dena: harreman izaera. Alderdi honetaz luzeago jardungo dut gero.

- 27/12*i*
- 3.- Zeharkakotasuna GEHSaren garrantzitik. EZMk bilatzen duen helburua (5. artikulua araberak) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren gizarte politiketan eragitea da. Baina modu sinergikoan egin nahi du, ondo baitakigu lankidetzan oinarritzen diren proposamenek zerikusi handia dutela ongizateari lotutako politiketan balio erantsia sortzearekin: ez bakarrik izaera sektoriala dutenekin edo haiengan zuzenean eragina dutenekin. Areago, ongizate kolektiboan, gizarte kohesioan eta elkartasunean eragina duten ekintza politikoko eremu guztietako politika orokor guztietan ekarpenak egin ahal izatea eskatzen du.

Ez ginateke harritu behar GEHSk eta gobernuak elaborazio politikoko prozesu konpartituak egin nahi badituzte, bakoitzaren ideologiak eta logikak errespetatuz. Ez da arraroa, ezta ere, dagozkien eremu guztietan egin nahi izatea, eta GEHSi dagokionez, EAEn indarrean dauden gizarte sistemetan: Gizarte Zerbitzuenean, bai, baina baita ere inklusioaren edo enpleguaren eremuan (eremu horiek guztiak dekretua sustatu duen sailaren barruan daude); Gizarte Zerbitzuei ez dagozkien gai edo azpisistemetan, adibidez, famili eta komunitate politikak, dibertsitatea eta inmigrazioaren kudeaketa, haurren eta nerabeen politikak, gizarte ekonomikoa edo ekintza edo gizarte berrikuntza; eta, areago, mugakideak diren edo gobernuko beste sail batzuei dagozkien gaiekin zerikusia duten arloetan ere pentsa genezake: gizartea eta hezkuntza, gizartea eta osasuna, gizartea eta bizilekuak, gizartea eta kultura, gizartea eta legea edo gizartea eta espetxea dira GEHSe Lan eta Gizarte Gaietako Sailarekiko elkarrizketan alboratu nahi ez dituenetako batzuk.

4.- Administrazio organo bat dekretuz sortzea. Lege formaleko erreserbarik ba al dago?

Irizpenak esaten omen du EZMren ezaugarriak dituen organo bat sortzeko solemnitare handiagoa beharko litzatekeela, gutxienez legearen lerruneko (eman den argudioa da beste batzuetan halaxe egin dela). Argi dago Konstituzioak lege lerruna Gobernu eta Estatu Kontseilua erregulatzeko bakarrik onartzen duela. Konstituzioaren 103.2 artikulua, argi eta garbi, agintzen du gainerako administrazio organoak Legearen arabera "sortzen, arautzen eta koordinatzen direla". "Legea", gure kasu honetan, 30/1992 Legea da. Lege honek administrazio publiko bakoitzaren autoantolaketaren printzipioa finkatzen du eta administrazio jardulari gaitasuna ematen dio bere organikotasuna arau bidez garatzeko, lege horretan eta bere eskumen eremuan ezarritakoa muga bakarrik izanik. Ematen du hau ez duela inork zalantzan jartzen.

Orduan, zergatik desbalorazioko argudio bat (honelako mahai batek ez du honelako dekretu bat merezi) argudio oztopatzaile bihurtzen da? Pentsa genezake, halaxe esaten baita, ekonomi eta finantza araubiderik ez edukitzeagatik dela. Halere, hori ez da beharrezkoa (30/1992 Legearen 11. artikulua), eta gainera, erakunde instituzionala ez den aldetik, haren kudeaketa organoaren nagusi den sailari dagokio (1/1997 Legegintzazko Dekretua), eta ez organoari berari.

Horrenbestez, organo honek, Gizarte Zerbitzuen Legeak sortu ez aurreikusi ez duenak, bizitza propioa izan dezake lege horretatik kanpo? Bai, zalantzarik gabe.

5.- Ustezko funtzio bikoiztasunaz.

Egia da 30/1992 Legearen 11. artikuluko 3. idatz-zatiaren arabera ezin dela organo berri bat sortu, dagoeneko existitzen diren beste organo batzuen funtzioak bikoizten baditu.

Horri buruz esan behar dudana guztia hau da:

EZ dator bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluarekin.

- ez eduki materialagatik, organo hau soilik Gizarte Zerbitzuen eremurako kontsulta organoa delako, eta ez elkarriketa zibilaren eremurako (lehen aipatutako zentzuan eta goian aipatutako gaietan),
- ez bere eskumenengatik, askotarikoak bide direnak;
- ez bere eraketagatik, GZEK eragile askotako eta maila askotako organoa den aldetik, eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeentzat bakarrik den aldetik. Inork ez du esan erakunde arteko organoa Kontseiluaren bikoiztasuna denik, nahiz eta organoaren kideak kontseiluko kide izan.
- Ez datoz bat beren izaeran ere, EZMk informazio-emaile hutseko funtzioa (12/2008 Legearen 48.3 artikulua GZEKari ematen diona) gaintitu nahi duelako, eginkizun askozaz ere proaktiboagoa izateko.

EZ dator bat Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiarekin. Urriaren 26ko 225/2011 Dekretuaren 6.1 artikuluan agintzen denez, organo horrek azterketa eta ikerketa lanak egingo ditu. Horren ondoren xedatzen da azterketa eta ikerketa horiek Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunen esparruan egingo direla, hau da, egin beharreko azterketa eta ikerketak aipatutako planean xedatutakoari lotzen dizkio. Baina proiektatutako testuan izaera orokorrean xedatzen da Elkarriketa Zibileko Mahaiak hirugarren sektoreari buruzko ikerketak egingo dituela, eta mahaiarentzat interes berezia duten eremu zehatzetan. Pentsatu behar dugu azterketa eta ikerketa horiek hirugarren sektoreari buruzkoak, edo mahaiarentzat interesgarri diren beste alor batzuei buruzkoak, izango direla, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan sartu ez direnak, edo, plan estrategikoan aurreikusi badira, beraiei buruzko ikerketa edo azterlanik egin beharrik ez dagoela jotzen direnak izango direla.

- 6.- Irizpen honetan, boto partikular hau erantsi nahi niokeena, EZMk Gizarte Zerbitzuen Legearen kausa dakarrelako hipotesia bakarrik irudikatzen dela dirudi. Parte hartze instituzionaleko lege bat onartzea txalogarria den arren, hura egiteko prozesua ez dator bat, inondik ere, proiektatutako legegintzazko testua egiteko prozesuarekin. Ez da aukera bat alferrik galdu, irizpenak dioenez. Balizko dekretu honekin benetako parte hartzeari

balioa emateko aukera sendotu ahal da, eredu estereotipatuak gaindituz, lankidetzazko ahaleginen funtzioa azpimarratuz, eta talentua garatzeko konfiantzazko espazioak sortzearen garrantzia nabarmenduz.

Mikel Ruiz

Hirugarren Sektorearen ordezkaria Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan.



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-2028-12